



ELEBITASUNAREN ARAZOA HERRITAR BATEN IKUSPEGITIK

Edorta Uria Zubiarrain

Kristina Eloseggi euskal filologian lizentziatua da eta aurtengo Apirilean bukatutzat eman zuen bere tesi doktora. **"KASU ETA PREPOSIZIOEN JABEKUNTZA-GARAPENA HAUR ELEBIDUN BATENGAN"**

titulupean gaurkotasun handiko gaia landu du tesiaren egileak: hizkuntz jabekuntzaren inguruko problematika zabalaren ikerketa-lan sakona eskaini digu bostehun orrialdetan bildutako lan mardulean. Jaiotzez hernaniarra izanik eta berak aztertu duen hizkuntz arazoak gure herriaren eguneroko bizitzaren baitan duen eragin zuzena kontutan hartuz, bidezkoa iruditu zaigu HERNANI-96 aldizkariak luzatu digun gonbidapenaren aurrean lanari buruzko gogoeta xume hau ezagutzera eman eta, bide batez, hizkuntzaren bilakaeraz kezkatutik gauden hernaniarrontzat interesgarriak suerta dakizkigukeen hainbat xehetasun plazaratzeko aukera honetaz baliatzea. Hona bada, ondorengo lerrootan eta ezinbestean laburbildurik, tesiaren bizkarrrezurra osatzen duten atal esanguratsu batzuk. Zorionak Kristina egin duzun lan bikainagatik!.



TESIAK JORRATZEN DUEN ALORRA

Elebitasuna egunetik egunera bizitzea tokatzen zaigun errealitatea da, 1996ko gure euskal gizarte honetako biztanleok elkarrekin dauzkagun komunikazioko harremanetan; areago oraindik: nolabait "jasan beharra" dagokigun arazoa ere badela esan daiteke, elebitasun-egoera hori elebidunon –hau da euskal hiztunon– hizkuntzaren egoera diglosikoa (bi hizkuntza indartsuagoen aurrean euskarak bizi duen menpekotasuna, gutxiengotasuna eta bigarren mailako eremu soil batzuekiko mugapena) estaltzeko eufemismoa dela ikusirik.

Gauzak horrela, eta egoera horren larritasunak eraginda, gure artean elebitasunari buruz hitz egin, idatzi, aztertu, eskatu, erabaki... izan denean, fenomeno honek gizartean erakusten dituen egoera, ondorio, lege, jarduera, e.a. aipatzeko izan ohi da neurri handi batean. Hitz teknikoagoa –eta kasu honetan, euskal irakurlearentzat agian ezagunagoa– erabiltzeko, soziolinguistikaren ikuspegitik egin izan da gehienbat.

Horrela bada, eta zuzenago gaiaren hariari helduz, zer esan daiteke egoera hori bizi duen gizon-emakume elebidunaz? Ez ote hari buruz inoiz hitz egin behar, aipaturiko ikuspegi soziolinguistikotik izan gabe? Gauza bat da, elebitasun-egoera hori den bezala delako, dituen era bateko zein beste harremanengatik (hezkuntzako, lanbideko, administrazioako, zerbitzueta, gizarteko, etab-eta-ko esparruetan) bizitzea tokatzen zaiona eta areago, beste arazo erantsi bat, euskaldunon kasuan bezala eta ama-hizkuntza egoera minorizatuan aurkitzen delako batik bat, elebitasunak bestelako hainbat ñabardura korapilotsu ere planteatzea.

Illo horretatik, oso bestelakoak lirateke (elebitasunaren jarduera-esparrutik atera gabe, noski) gizon-emakume elebidun horren baitan –elebitasun horren jabekuntza-garaian bereziki– gizartearen barruan ematen diren prozesuak. Euskal Herriko euskaldunoi era batera nahiz bestera bizitzea egokitzen zaizkigun eta, hala ere, oso gutxitan aipatzen ditugun prozesuak. Esan dezagun, hemen bai jadanik esparru berri baten erdian aurkitzen garela: **psikolinguistikaren** hizkuntz eremuan alegia. Kristinak landutako tesiaren lehen zatian sakonki aztertzen da fenomeno horrek duen eragina, hori ongi definitu ondoren linguistikaren eremu zehatzagotan bete-betean murgiltzen bada ere.

Hortxe, hain zuzen, kokatzen da orriotako albiste-gaia dugun Kristina Elosegiren tesiak jorratzen duen ikerketa-lan interesgarria. Zehazkiago esanez, gaztelaniaren eta euskararen jabekuntza-prozesua haur txiki batengan une berean aztertzen duen tesia: zein fase ematen diren, nola joan ohi den fase bakoitza hizkuntza batari eta besteari dagokionez, zein ondorio eta emaitza dakartzkion haurrari...

LANAREN ABIAPUNTUA

Esan dezagun, hasteko, esker onez datorkigun zientzi ekarpena dugula tesi doktoral hau euskaldun guztion gune linguistikora; izan ere, euskaldunok, tamalez, oraindik ere gutxiengoa gure gizarte honetan sarritan bizitzen dugun egoera izan arren, apenas ezagutzen den hizkuntz jabekuntza elebidunaren fenomeno honek duen dimentsio psikologikoa, jabekuntza egiten duenarengandik berarengandik hasita.



Umetan entzunak ditut
hitzik eta urrunenak.

Lehenengo hitz haiek ditut
gehien deragidatenak


Gure hitzok ez dira
gure zelulen halakoak:
zelulek ez bezala,
hitzik eta sakonenez
deragigute gehien.

("Denbora galdu alde" / B. Gandiaga)

Dena den, ez dugu uste harrigarria gertatu behar duenik datu honek, kontuan hartzen badugu, alde batetik, gaur egun ere hizkuntzaren jabe-kuntzaz hainbat teoria –sarritan elkarren oso kontrajarri– dagoela oraindik ere psikolinguistikaren munduan eta, bestalde, bere garapenik nagusia azken berrogei urteotan egin duen zientzia dugula: 1957an eta urte horretan plazaratu ziren Skinner-en *Verbal Behavior* eta Chomsky-ren *Syntactic Structures* hartzen dira psikolinguistikaren aro modernoaren hasiera-puntutzat.

Hori horrela, hizkuntz jabe-kuntzari buruzko lau teoria nagusien azterketa xehea egin ondoren, Kristinaren lana haren zergatia esplikatu nahi duten korrante nagusienei buruzko ondorio haue-tara iristen da: "Hizkuntz jabe-kuntza bezalako eginkizun konplexua ezin da..." aipatu lau teoria nagusienok beren baieztapenen abiaburutzat har-tzen duten "...aspektu bakar batean oinarritu...". "Hizkuntzak, **giza trebetasuna** den neurrian, be-rezia den zerbait –**sortzezkoa** zein **jabetua**– duen iritzikoak gara, baina trebetasun hau garatu ahal izateko, hurrek **ingurunearen** beharra dute... Ho-rrela bada, hainbat aspektu elkartzen duen eta, dena baturik, mintzairaren "misterioa" errealitate bihurtzen duen jarrera eklektikoan kokatzen gara".

Gogoan har orain artean esandakoa hizkuntz jabe-kuntzaz dela soilik. Eta gauzak aipatu berri du-



gun egoeran egonik hizkuntza bakar baten jabe-kuntzaz, antzeko egoeran gaude bi (edo hiru) hiz-kuntzen jabe-kuntzari dagokionez. Hala aitortzen du Kristinak berak elebitasunaren definizio bat es-kaintzen hasi nahi duenean: "Elebitasunaren kon-zeptua oso erlatiboa da; berez **gehiago da galde-ra termino absolutua baino**. Ezagutzen ditugun de-finizioak oso ugariak dira eta oso ezberdinak, eta bakoitzak elebitasunaren ikuspegi konkretu bati erantzuten dio. Hori dela-eta, **"zailtasun handiak aurkitzen ditugu termino hau definitzerakoan"**.

Autore bakoitzaren arabera interes-guneek aginduta definizio zehatz bat eman ezina ez da, or-dea, oztopo gertatzen artikulua labur honetan go-goeta-gai dugun tesi honek haur elebidunen sail-ka-pen bat proposatzeko, bi hizkuntzen jabe-kuntza-prozesua noiz, non eta nola garatu den, edota ele-bitasunaren garapenean eragin erabakiorra duten ingurune soziokulturalaren eta adinaren faktoreak azpimarratzeko edota elebitasunaz jabetzeko bi-dean ematen diren mailak edo urratsak deskriba-tu ahal izateko.

IKERKETAREN EKARPENAK

Leku apartekoa eman nahi nioke nire balora-zio labur honetan gure lurralde honetako elebidu-nentzat –euskaldunontzat– interes berezia duen arazo bati: zernolako lotura dago haurarentzat bi





hizkuntzez jabetzearen eta ezagupide mailako garapenaren artean?

Ba berri onak dakarzkigula esango nuke euskaldunontzat –euskal hiztunontzat–. Izan ere bilakaera oso nabarmena somatzen da oro har ikertzaile guztien artean: lehen garai bateko gaitzepen eta arbuioetik hasi, elebitasuna onartzerara igaro eta, gaur egun edonon ikusten denez, elebitasunak haurraren adimen-garapenean duen mese-dea aitortu eta hori bultzatzeko jarrera positiboa nagusitzera ino.

Hain zuzen ere, 1960 urtea baino lehenagoko ikerketeta-saioetan elebitasunak haurraren adimenaren garapenean izango lituzkeen ondorio kaltegarriak edo duda-mudazkoak, bederen, nagusitzen dira ikertzaileen artean. Baina ohar gaitezen Kristinak berak jarrera honi buruz dioskunaz: garai

hartan "...elebitasunaz hitz egiten den gehiengotan, haren aurka **mendebaldeko gizarte gehiengotan betidanik oso errotuak dauden aurriritziak** ateratzen dira... Elebakartasunaren aldeko defentsa, gehiago zen **politikoa zientifikoa baino...**".

Alabaina, "Lambert-en (1962) ikerketa da, zalantzarik gabe, metodologi zorroztasunari erantzuten dion lehena..." eta "Ikertzaile honek frogatu ahal izan zuen **elebidunek nolabaiteko adimenaren nagusitasuna erakusten dutela... sinbolo-sistema batetik bestera igarotzeko duten erraztasunari esker**".

Eta alor honetan ikerketa-lana burubelarri murgiltzen da baieztapen hori berresten duen euskararen eta gaztelaniaren inguruko xehetasun osoko azterketa teknikoa egiten; eta lan-eremua, bere horretan, zabalegia izango litzatekeenez,



euskal deklinazioko zenbait kasuri eta gaztelania-ko zenbait preposiziori atxikitzen zaie; eta ikerketajardueraren eremua mugatu eta azaldu ondoren, tesi honen ekarpen garrantzitsuenak liratekeen hiru hipotesi nagusi formulatzen dira. Tesiaren ondorengo garapen linguistikoa eta baita lanaren helburu nagusia ere, hipotesi horietako bakoitza frogatzean datza.

Hona, Kristina beraren hitzetan: "Hizkuntz jabekuntzaren arloan, orokorki, eta kasu marka eta preposizioen arloan, zehazki, ikertu dena aztertu ondoren alde batetik, eta euskara eta gaztelera hizkuntzen ezaugarri eta berezitasunak kontuan hartuz bestetik, ondorengo hipotesiak aurkeztuko ditugu jarraian":

*LEHEN HIPOTESIA

Kasu markak eta preposizioak adin berdintsuan azalduz joango dira bi hizkuntzetan, bi hizkuntza hauek **jokabide guztiz ezberdina** erakusten duten arren, kontutan izanik euskaraz markak atzizki bidez ematen direla eta gaztelaniaz, aldiz, preposizio edo izenordainen bidez.

*BIGARREN HIPOTESIA

Haurraren hizkuntzaren jabekuntza-garapenean **aditz jokatu**a edo inflexioa azaltzen denean, aditzarekin **komunztadura** duten kasu edo izenordeak azaltzen hasiko dira.

*HIRUGARREN HIPOTESIA

Jabekuntzaren bilakabidean, euskararen eta gaztelararen arteko nahasketarik ez da emango, **haurrak bi hizkuntzak ondo bereiziko ditu** hasiera batetik.

AMAIERAKO ZENBAIT IRUZKINTXO

Orri hauen mugak eta asmoa zeharo gainditzten dituen egitekoa gertatzen da hipotesi hauen euskarri diren frogak erakusten dituzten taula xeheak hemen ematea. Zilegi bekigu, hala ere, komentario batzuk egitea, hipotesiok beren baitan duten interesa irakurleareari ageriago jartzeko.

Hauxe da lehen-lehenik datorkidan gogoeta: haurrak bi hizkuntza batera ikastea (eta gurasoei

dagokienez, berriz, irakastea) ez da inolako kalteren iturria ikasten ari den haurrarentzat. Izan ere oso maiz entzuten den gauza baita: "Gure umea hitz egiten (edo ikasten, edo...) apur bat atzera dator, hizkuntzengatik nahastu egiten delako". Umearen bizitzan gertatzen eta nabarmentzen ari den "nahasketa" horren arrazoa, seguruenik, beste nonbait bilatu beharko litzateke esku artean darabilgun tesi honen argitan: hizkuntzetako bat umearen aurrera, familiatik batik bat, aurkeztzen ari den desorekan, adibidez; datu honek aldarrikatzen duen helduen erantzukizuna baztertu gabe.

Lehen hipotesikoa bigarrenean esaten denarekin bateratuz burura datorkidan beste zera hauxe da: hipotesi hauek eta berauen fidagarritasunari eusten dieten emaitzek hankaz gora botatzen dutela, alegia, hizkuntza batzuek (euskarak kasu honetan) ikasi ahal izateko duten ustezko "zailtasuna"ren mitoa. Zeren eta -azpimarratu egin nahi dut- "kasu markak (euskara) eta preposizioak (gaztelania) adin berdintsuan azalduz joango dira" (1. hipotesia) eta hori borobilduz, gainera, "aditzarekin komunztadura duten kasu (euskara) eta preposizio edo izenordeak azaltzen hasiko dira" (2. hipotesia).

Eta, noski, "euskaraz, kasu gramatikalek komunztadura dute aditzarekin, hau da, aditzak per-pausean ager daitezkeen **nor**, **nork** eta **nori** sin-tagmekin eduki dezake komunztadura", hainbaten ustez egundoko oztopoak eraginez hizkuntzaz jabetzeko prozesuan. Ez ahaztu, era berean, gogoe-ta hau egiterakoan apropos azpimarratu ditugun hiru elementuok, komunztaduraren bidez, elkarren artean lotzeak haurrari eskatzen dion eta, frogatzen denez, honek egitea lortzen duen adimen-eragiketara korapilotsua.

Azkenik datorkidan burutapena 3. hipotesiak pizten didana litzateke. Izan ere guraso askoren beldurra haurraren hizkuntz jabekuntza elebidunaren aurrean hizkuntzen arteko nahasketatik baitator; hau da, umea ongi mintzatzeko gauza ez izatea, ez euskaraz, ez gaztelaniaz, eta bietan erdi-purdiko mintzaira erabiltzea.

Hori hala gerta ez dadin eta haurra hasieratik bertatik bi edota baita hiru hizkuntzaz ere modu eraginkorrean jabetu dadin, bi izango lirateke, Kristina Elosegik bere tesiaren hainbat unetan aipatzen duenez, bete beharreko baldintzak:

1. Ondo bereizirik edukitzea beti –umearen hizketa-laguna den helduaren aldetik batez ere– hizkuntza bakoitzaren testuinguruak. Zer esan nahi dugu? Helduak beti hitz egin behar diola haurrari hizkuntza bakar batean, beste hizkuntzaren interferentziarik gabe; hau da, hizkuntzalaritzaren munduan hala deritzon "Grammont-en legea" –"hizkuntza bat, pertsona bat"– ahalik eta zuhurrenik betetzea, alegia. "Zenbat eta handiagoa" izan hizkuntzen arteko "banaketa hau, orduan eta azkarrago eta errazago haurrak bi hizkuntza sistemak bereizten ikastea".

2. Bi hizkuntzak beren artean nolabait teko oreka mantendu behar dute, bai haurraren harremanetako maiztasunei dagokionez eta baita haurrak soma dezakeen balorazioari dagokionez. Hau da, elebitasun honek zenbat eta aztarna diglosiko gutxiago eduki, orduan eta errazago lor daiteke hizkuntz jabe-kuntza elebikoa.

Honaino, bada, urtekari honen lerrootatik herritar batek egindako lanari esker albiste pozgarri honi buruzko xehetasun batzuk hernaniarren eskura jartzeak eman duena. Ezer argitu ote dugu? Jakinminik sortzeko gaia ote da?

Herriko famili unitate elebidunen artean gogoetarik egiteko motibaziorik ba ote dago? Famili eta gizarte-barruko jokaeran eraginik izango ote du? Hainbat gurasok beren seme-alaben hizkuntzari buruzko hautapenak egiteko orduan dituzten kezak argibidean jartzeko ekarpenik ba ote dugu?

Txikia eta mugatua den arren, gero eta hazkunde handi eta itxaropentsuagoa bizitzen ari den

euskal kulturarekin eta gure herriarekin lotura duen albiste atsegina hortxe dago; poztuko ginateke iruzkin hauen bultzada, lagungarri gertatuko balitz, bere maila apalean, benetako elebitasun orekatua haurren bizitzako lehen urratsetatik bertatik lortzeko ardura barneratu eta egitasmo hori Hernaniko gizartean jator gauzatuz joan dadin. Gure hizkuntzak eskertuko du.

Artikulu honi amaiera emateko ohar laburra: tesia bere luze-zabalean ezagutzeko gogoia duenak jar bedi Kristinarekin harremanetan, ez dago inolako eragozpenik ale bakan batzuk gai honen



inguruan sakondu eta interesa dutenen artean banatzeko. Berriro ere nire zorionik leialena tesiaren egilearentzat, lan-ordu askoren emaitza dastatzeko aukera paregabea eman baitigu aurtengo Sanjuanetan. Hizkuntzalaritzaren eremuko ikerketan interesgarri berri hau euskararen aurrerabidea errazteko probetxugarri izan dadila, bai herritarrontzat eta baita Hernaniko mugaz kanpoko euskaldun guztiontzat.